

Miren Dobaran

“Euskara ez da lanerako plus baten antzera ikusten”

Miren Dobaran 1970ean jaio zen Berangon, Bizkaian. Zazpi urtez eta ekainera arte, herri horretako alkatea izan da. Horretarako, aldi batez bere lanpostua uzteko baimena eskatu behar izan zuen, Uribe Kostako Mankomunitatean. Euskal Filologian lizentziatua da, eta euskara teknikari ziharduen bertan. Ez da itzuliko oraingoz; martxoan Eusko Jaurlaritzako HPSko Euskara Sustatzeko zuzendari izendatu zuten.

UNAI BREA

Argazkia: Iñigo Azkona



“Euskal Autonomia Erkidegoan euskaraz ez dakien batek ez du euskararen beharrik, ez bada funtzionario plaza lortzeko”.

Eguneroko jardunean euskara sustatzea erraza al da? Euskararen aldeko jaialdi erraldoiek beti edukitzen dute arrakasta, baina egunerokotasunean zer?

Euskara eguneroko jardueran sustatzea zaila da benetan. Euskararen jaialdi erraldoien arrakasta aipatzen

duzu, baina jaialdi horiek ere jaialdi huts bilakatzen ari dira, tamalez. Zenbat neska-mutil gazte ikusten ditugun gaztelaniaz hitz egiten horietan! Gaztelaniak indar ikaragarria dauka arlo guztietan, eta gazteek eta gazte ez direnek ere errazenera jotzen dugu, ohituragatik, euskararen prestigio

ezagatik, eta abar. Orduan, erabilera sustatzea ez da hain erraza. Ume askorentzat, euskara eskolako hizkuntza da, eta eskolatik irten eta gero, gaztelania erabiltzen dute gurasoekin, eskolaz kanpoko jardueretan, aisialdian... Sare hori guztia euskalduntzea zaila da, baina hor dago gakoa.

Umeak eskolatik irten eta aukera izan behar du kirola euskaraz egiteko, euskaraz jolasteko... Horretan lan handia egiten ari gara erakundeak. Udaletatik, foru aldundietatik zein Jaurilaritzatik sare hori apurka-apurka euskalduntzeko ahalegin handiak egiten ari gara.

Kultura Sailaren web orrian zuzendaritza horren egiteko zerrenda ageri da. Lehenengoa hau da: euskara normalizatzeko eta hizkuntza ondarea aberas-teko ekimen pribatuak sustatzea. Euskararekiko erresistentzia handiak al daude eremu pribatuan?

Bai, izaten dira, euskara ez delako beharrezkotzat jotzen. Euskal Autonomia Erkidegoan euskaraz ez dakien batek ez du euskararen beharrik, ez bada funtzionario plaza lortzeko. Baina euskara enpresa munduan, esaterako, plus bat dela ikusarazi nahi diegu enpresariei, eta baita langileei ere. Kalitate arloan hobekuntza dela ikusten duten heinean, euskararekiko jarrera aldatuz joango da.

Betiko kontua: euskara ez da politikarekin nahasi behar, ez dute alderdi batzuek bereganatu behar... Denek euskara ahoan, ordea.

Euskara ez da politikarekin nahasi behar, eta askotan nahasten da, zoriturrez. Euskara guztiona da, gure kultur ondarea eta altxorra. Politikarekin nahasten denean, euskara bera da kaltetua, eta alderdi politikoa batzuek euren banderatzat hartzen dute. Horrek ez dakar ezer onik.

Zer-nolako harremana daukazue euskararen aldeko lanean dabiltzan gizarte mugimenduekin?

Ona, zalantzarik gabe. Gure ustez, ezinbesteko tresna dira euskararen normalizazio eta sustapenean, beraz elkarlana behar-beharrezkoa da euskararen alde egin nahi badugu. Bakoitzak bere esparrua dauka, ordea. Guri hizkuntza politika diseinatzea dagoki-

gu, eta gure ildo estrategikoak lortzeko beraiek lan ikaragarria egiten dute euren ekintzekin eta hala aintzatesten diegu. Besteak beste, diru-laguntzen zenbatekoa urtero handitzen da; Euskaditik kanpo harritu egiten dira, euskara kontuetarako ematen ditugun kopuruak direla eta.

Denbora gutxi daramazu karguan. Zer erabaki garrantzitsu hartu duzu?

Lehenengo erabakia diru-laguntzak ahalik eta arinen ebatzea izan da, eta dagoeneko ebatzita daude. Sailburuordetzaren helburua lehenengo seihilekoan ebatzita izatea zen. Guretzat ahalegin handia izan da. Ezinbestekoa da euskalgintzan ari diren elkarreentzat ahalik eta laste-

“Euskararen aldeko jaialdi erraldoiak ere jaialdi huts bilakatzen ari dira, tamalez.

Zenbat neska-mutil gazte ikusten ditugun gaztelaniaz hitz egiten horietan!”

rrer jakitea jasoko dituzten zenbatekoak. Etorkizunerako, gai honetan hobetuz joatea espero dugu, eta nire helburua euskararen alde lan egiten duten gizarte mugimenduekin harreman zuzena eta maiztasun handikoa izatea da. Hurbiltasun hori lortzea, feedback zintzoa, elkarrekin lan egin behar dugulako helburu bera lortzeko, hau da, euskara indartzea eta sustatzea.

Zuzendaritzaren beste egiteko bat: “Euskarak edozein gizarte-arlota duen erabileraz edo bizi duen egoeraz gizartea sentiberatzeko kanpainak edo neurriak garatzea eta koordinatzea”. Badugu, oro har, sentiberata-

sunik? Jende askorentzat euskara oztopoa da, zama, eta oso gutxirentzat beharra.

Lan handia dago egiteko arlo horretan. Euskarak, leku askotan, ez du inolako prestigiorik, ohitura faltagatik, beharrianik ez dagoelako... Lan munduan, esaterako: oso zaila da euskara normalizatzea beharrianik sentitzen ez delako. Hor ahalegin handia egin beharra dago eta horretan dabil jo eta ke Erramun Osaren zuzendaritza (Koordinaziorako Zuzendaritza). Euskara, askotan, oztopo legez ikusten da, ez da lanerako plus baten antzera ikusten, ingelesa bezala esaterako. Euskararenanako ikuspegi edo jokabide hori aldatzeko bide luzea egin behar da, baina bide horri ekin egin behar diegu. Hor daukagu martxan, berbarako, “Ukan birusa” kanpaina, ondo hartua izan dena.

Corpusari dagokionez ere zereginak dauka zuzendaritza horrek. Hori ez da Euskaltzaindiaren eremuan sartzea? Edo lan osagarria da?

Corpus mota asko dago. Hizkuntza-erabilera zuzenaz erabakitzea Euskaltzaindiari dagokio, zalantzarik gabe. Baina corpusaren osaera eta etengabeko elikadura erakunde publikoen ardura da, kasu honetan Eusko Jaurilaritzarena. Corpus berezitu kasuan ez da Euskaltzaindia sartzen. Esaterako, zientzia eta teknika corpusa Elhuyar egiten ari da, baina Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru-laguntzari esker. Nire ustez, Euskaltzaindiak parte hartu behar du oinarriak ezartzen, eta arauak jarri behar ditu, baina corpusak jabetza publikoa izan behar du. Erakunde publikoen presentzia ezinbestekoa da lan hori egiteko, Katalunian gertatzen den bezala. Guri dagokigu gidatzea eta koordinatzea, eta hori ari gara egiten. ■

Babeslea: Lekeitioko Euskara Zerbitzua.



LEKEITION parra-parra euskaraz!

Lekeitioko Udala
Garaia 1
48200 LEKEITION
Tel. 94 603 41 00

Uztailaren 24an (asteartea). “Enfield Grammar School and Concert Band” banda inglesa, herriko plazan, 19:00etan.

